


'Agresiopean eroriak
daudenekin
gure oiua altxatu
behar dugu.
Heurak
bizi duten
bakardadeak
angustiz betetzen
gaitu'.



"Nunahi heriotzak ustekabeen arrapatzen gaituela ere, bedi ongi etorria, gure gudu-oiua belarri adixkideengana iritxi dedin bitartean eta beste esku batzuek gure harmak har ditzaten eta beste zenbait gizon prest arki ditezen bitartean inperialismoaren illeta-doiñua abesteko, ametralladoraen abestiaz eta gerrate ta garaipen-deadarrez baliaturik".



«CHE» ez da hil

SAIZARBITORIA

Gizon bat dago egun hauetan, dagoenik biaje luzeena egiten, gizon gehienak desiratu eta lortzen ez duten gallurrera iristen. "Che" Guevara mito bat egiten ari da.

"Che" Guevara egunero hiltzen eta berpizten ari diren bizardun hori da. Mundu guziak ikusi du bere begiraldi bizia, milla aldizkarietan; buru erromantiko horrek eguneroko bizitzaren berdintasunetik atera gaitu, eta behar bada European ezkertiarrek eginitako karikatura besterik ikusi ez dugulako, ez digu pentsatu arazi.

Bai. "Che" —bizarra, purua, alkandora berde irikia— Egoameriketako diktadorei, gaiztakeriak egiteko prest dagoen haurtzaz pinta-tu oi digute. "Che" eta bere gerrillak. Zein hitz "exotikoak", pransez ezkertiar intelektualen ahoetan!

"Che", oso urruti dago gugandik gorputzez, biaje oso luzea egiten, beharbada kiskalitako hauts besterik ez da eta espirituz are eta urrutiago dugu. "Che" ba, urruti dugu, gerrilla ere bai, Europako ez kertiar eta eskuindarren zorionerako.

Han, Bolivian, gugandik urruti ba, itsaso batek eta beste zenbait gauzek banatutzen gaituztelarik, "Willy"-k, "Ramón"-en gorputz zauritua bizkar gainean hartu zuen. Hunek ezin eutsi zion oinazeari. Ranger'ak urbil zeuden, "Willy" nekatua. "Ramón" lurrean utzi behar izan zuen arnas hartzeko. Rangerrak gero eta urbilago, altua

eman zioten, "Willy"-k karabina hartu zuen... Bere anaiaren gainean zerraldo erori zen.

Gero pasa zena gerrilleruak etzuten ikus. "Ramón" dalakoa, aldizkari guzietan ikusi ahal izan dugu. "Che"-ren antza ikaragarria zuelako edo ber-bera zelako, bere begharin hotza, aho zabala, guziok ikusi ditugu... "Willy", alabeharen kapritxuz, ez dugu ezagutu, baina aho zabalik geratuko zen hori orainok u daberriko zerurari begira...

Dena dela, "Willy", "Ramón" bezala "Che" izan edo ez izan—malda gora jo zuen ideal batei jarriz, biek eman zuten bizitza kausa baten alde... Baina "Willy" ez duke beharbada, "Le nouvel observateur"-en tirada gehituko. Horra hor kaka!

Gizona, gizon da eta oraindik ba da gizonak. Errezena "Ramón" hiltzea zen —Bolivia'n ez baidago heriotza kondenatzerik (?)— eta esku batek eutsi zuen pistola beste batek bizitza uzten zuen bitartean... Nolanahi ezin izan dizkie mitoari egoak moztu.

Ernesto Guevara ez da hilko. Bein Cuba'n rebozuzioa eginik, ministerioko mahi atzetik Bolivia'ra joan zenean hilezkor egin zen. Régis Debray'ek konprenitu du egia, rebozuzionario bezala juzgatua izateko eskaria egitean. Hor bizi da "Che" ifioiz ez bezala. Ez da hilko eta munduko gazteri guzien barnean, rebozuzioa egiten jarraituko du; gutako bakoitzaren gerrilla zuzentzen, eta bere abots apalak ez du asmaren trabarik izanen, ordenak emateko garaiean.

Ehun edo beharbada milla ero ziren atzoko gerrilleroak. Gaur "Willy" eta "Ramón" hil ondoren lejiioika. Lejio bat Debray.

Han urrutian, gure artean ifioiz ere sumatuko ez genuen "gegi-yego" erromantikoa, Don Juan eta Don Quijote ridikulu batekin munda zaharreko mito zaharrekin batera lotara bialiko genuena, bihotzaren barnean sumatu beharko dugu, geuron bizitzan aurrera begiratzearan...

Ernesto "Che" Guevara —oraingoan iturri onetik— ez da hil. Gizonak, militarrek izanda ere, ezin baidituzte beste gizonak dituzten ondasun guziak hil.